



1/2024 ZIRKULARRA, 2024KO URTARRILAREN 9KOA, ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZARENA, PFEZ-AREN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ORDAINKETEI BURUZKOA

Foru Aldundiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) Erregelamenduetan aldaketak¹ onartu dituzte. Horien bidez, lanaren etekinei aplikatu beharreko atxikipenen portzentajeak aldatzen dira, eta ondorioak izango dituzte 2024ko urtarrilaren 1etik.

Ondoren, 2024an aplikatu beharreko PFEZaren konturako sarrera eta atxikipen guztien laburpen bat aurkezten da:

1. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak

2024an, atxikipen-portzentajeen taula orokorra honako hau da:

Urteko etekina		Ondorengo kopurua						
Honetatik	Honetara	0	1	2	3	4	5	Más
0,00	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	15.410,00	5	3	0	0	0	0	0
15.410,01	16.230,00	6	4	1	0	0	0	0
16.230,01	17.370,00	7	5	3	0	0	0	0
17.370,01	18.680,00	8	6	4	0	0	0	0
18.680,01	19.970,00	9	7	5	2	0	0	0
19.970,01	21.520,00	10	8	6	3	0	0	0
21.520,01	23.350,00	11	10	8	5	1	0	0
23.350,01	24.970,00	12	11	9	6	3	0	0
24.970,01	26.930,00	13	12	10	7	4	0	0
26.930,01	29.260,00	14	13	11	9	6	2	0
29.260,01	32.010,00	15	14	13	10	8	4	0
32.010,01	35.330,00	16	15	14	12	9	6	0
35.330,01	39.900,00	17	16	15	13	11	8	0
39.900,01	43.590,00	18	17	16	15	13	10	2
43.590,01	46.980,00	19	18	17	16	14	12	4

¹ Araba: FD 50/2023, abenduaren 26koa (BOTH 150, 2023/12/29)
Bizkaia: FD 214/2023, abenduaren 28koa (BOB 249, 2023/12/30)
Gipuzkoa: FD 250/2023, abenduaren 28koa (BOG 250, 2023/12/29)

Urteko etekina		Ondorengo kopurua						
Honetatik	Honetara	0	1	2	3	4	5	Más
46.980,01	50.950,00	20	19	18	17	15	13	7
50.950,01	55.350,00	21	20	20	18	17	15	9
55.350,01	59.890,00	22	21	21	19	18	16	11
59.890,01	63.800,00	23	22	22	21	19	18	12
63.800,01	68.040,00	24	23	23	22	21	19	14
68.040,01	72.840,00	25	25	24	23	22	20	16
72.840,01	78.390,00	26	26	25	24	23	22	17
78.390,01	84.410,00	27	27	26	25	24	23	19
84.410,01	89.690,00	28	28	27	26	25	24	20
89.690,01	95.680,00	29	29	28	27	27	25	22
95.680,01	102.280,00	30	30	29	29	28	27	23
102.280,01	110.120,00	31	31	30	30	29	28	25
110.120,01	118.780,00	32	32	31	31	30	29	26
118.780,01	128.700,00	33	33	32	32	31	30	28
128.700,01	139.880,00	34	34	33	33	32	32	29
139.880,01	153.200,00	35	35	34	34	33	33	31
153.200,01	167.790,00	36	36	36	35	35	34	32
167.790,01	185.460,00	37	37	37	36	36	35	33
185.460,01	207.280,00	38	38	38	37	37	36	35
207.280,01	230.150,00	39	39	39	38	38	37	36
230.150,01	Hortik aurrera	40	40	40	39	39	39	37

2024rako, langile aktibo desgaituen kasuan, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari honako eskala honetan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea egoera hauetakoren batean badago:

- Desgaitasun-maila % 33koa edo handiagoa eta % 65koa baino txikiagoa duten langile aktiboak.
- Desgaitasun-maila % 33koa edo handiagoa eta % 65koa baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktiboak (araudian ezartzen den bezala).
- % 65koa edo handiagoa den desgaitasun-maila duten langile aktiboak.

Urteko etekina		Desgaitasun maila	
Honetatik	Honetara	a) atala	b) eta c) atalak
0,00	24.970,00	9	12
24.970,01	32.010,00	7	12
32.010,01	46.980,00	6	10
46.980,01	55.350,00	5	10
55.350,01	78.390,00	4	8
78.390,01	118.780,00	3	6
118.780,01	185.460,00	2	5
185.460,01	Hortik aurrera	1	3

2. Beste atxikipen batzuk

2024an aplikatu beharreko atxikipen-portzentaje nagusiak honako hauek dira:

Jarduera profesionalen etekinak:	
Oro har,	%15
Jardueraren hasiera berriko profesionalak (jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan)	%7
<p>Honako zergadunak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - EJZren 2. ataleko 851, 852, 853, 861, 862, 864 eta 869 epigrafeetan edo EJZren 3. ataleko 01, 02, 03 eta 05 taldeetan sartutako jarduerak garatzen dituztenak - Edo jarduera profesional horren kontraprestazioa zerbitzu-prestazio baten ondoriozkoa bada, zeina bere izaeratik eta besteren kontura eginez gero sartuta geratuko bailitzateke lan-harreman berezi honen aplikazio-eremuan: arte eszenikoetan, ikus-entzunezkoetan eta musika-arteetan lan egiten duten artisten eta jarduera hori garatzeko beharrezkoak diren jarduera teknikoak edo laguntzekoak egiten dituzten pertsonen artekoan <p>Kasu horietako edozeinetan, betiere beharrezkoa izango da aurreko ekitaldiari dagozkion halako jarduera ekonomiko guztien etekin osoen bolumena 15.000 eurotik beherakoa izatea eta zergadunak ekitaldi horretan jarduera ekonomikoetan lortutako etekin osoak eta haren lanaren etekin osoak batera % 75 baino gehiago izatea.</p>	%7
Kapital higigarriaren etekinak:	
Oro har,	%19
Irudi-eskubideak, jarduera ekonomiko baten garapenean ez bada	%24
Jabetza intelektual, zergaduna egilea ez denean, oro har,	%15
Jabetza intelektual, zergaduna egilea ez denean eta araudiak jarduera profesionalen etekinetan % 7 aplikatzeko aurreikusitakoa betetzen bada	%7
Jabetza intelektual, zergaduna egilea ez denean, zenbait urtetan zehar sortutako diren egile-eskubideen ustiapen-lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinen kasuan	%7
Atxikipena aplikatu behar zaien ondare-irabaziak (adibidez, sari batzuk ²)	%19
Hiri-higiezinen errentamenduak eta azpierrementamenduak	%19
Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (EEZR):	
Oro har,	%24
Europar Batasuneko egoiliarrak edo Europako Esparru Ekonomikokoak	%19

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 9an

Zerga Administrazioako Zuzendaritza

² Jarduera ekonomikoen etekintzat edo lan-etekintzat kalifikatutako sariei, etekin mota bakoitzari dagozkion araudia eta atxikipenak eta konturako diru-sarrerak aplikatuko zaizkie.